



**2023KO MARTXOAREN 27KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren hogeita zazpian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Joxemai Ormazabal Sukia.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko martxoaren 20an egindako bilkurako akta, idazketa akats bat konpondu ondoren onartu delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 16 zenbakidun fakturen zerrenda, HOGEITA HEMEZORTZI MILA EHUN ETA HAMAR euro ETA HIRUROGEITA ZAZPI zentimokoa (38.110,67 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**III.- AGAUNTZA ERREKAN, ELIZAREN ETA IKASTOLAREN ARTEAN, OINEZKOEN PASABIDEAREN KONTRATAZIOA: LEHEN ARTXIBOAREN IREKIERAREN AURREAN, KONTRATAZIO MAHAIAREN PROPOSAMENA.-**

Agauntza errekan, elizaren eta ikastolaren artean, oinezkoen pasabidea eraikitzeko kontratazio mahai 2023ko martxoaren 24an bildu zen, DIEZ Y COMPAÑÍA S.A. enpresak aurkeztutako EKAB dokumentua aztertzeko. Hau aztertutakoan, ikusi zen dokumentu horren III.C zatian adierazten dela operadore ekonomikoari EZ zaiola alde aurretik deuseztatu aurreko kontratu publiko bat, erakunde esleitzaille batekin egindako aurreko kontratu bat edo aurreko emakidakontratu bat, edo ez zaiola kalte-galerarik edo antzeko beste zehapenik ezarri aurreko kontratu horri dagokionez.

Bada, Udal honek eta lizitatzailleak berak dakiten bezala, baieztapen hori ez dator bat errealitatearekin; izan ere, Udal honek berak, duela gutxi, lizitatzaille horrekin sinatutako obra-kontratua suntsiarazi behar izan du. Kontratuaren xedea, hain zuzen ere, esleipen-prozedura honen xede den pasabidea eraikitzeko obrak egitea zen. Beharrezko administrazio-izapideak egin ondoren, Lazkaoko Udalak bi aldeak lotzen zituen kontratua suntsiaraztea erabaki zuen, eta administrazio-egintza hori behar bezala jakinarazi zitzaion lizitatzailleari.

Bai 2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikulua 2. apartatuak, baita SPKLren 71.1.e) artikulua ere, zeinak zuzentaru hori barne-zuzenbidera ekartzen baitu, kontratatzeko debekuaren arrazoitzat jotzen du 140. artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena egitean faltsutu izana; kasu honetan, hala gertatzen da, lizitatuak EKAB agiriaren jasotako datu bat objektiboki ez datorrelako bat egitateen errealitatearekin. Ildo beretik doa Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak (SPKLn araututako prozedurekiko arau osagarria, SPKLren beraren azken xedapenetako laugarrenean xedatutakoaren arabera) 69.4 artikuluan ezartzen duenez, erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Ondorioz, aurretik aipatutako gertakarietan oinarrituta eta aipatu den esparru juridikoa kontuan hartuta, egiaztatu da kontratatzeko debeku bat dagoela, DIEZ Y COMPAÑIA SA lizitatuari eragiten diona, SPKLren 71.1.e) artikulua. Hori dela eta, kontratazio mahaiak kontratazio-organoari DIEZ Y COMPAÑIA SA lizitazio-prozedura honetatik kanpo uztea proposatu dio.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, DIEZ Y COMPAÑIA S.A. enpresa lizitazio prozeduratik baztertzea erabaki du.

#### IV.- LARREATEGIKO A.20.19.1 PARTZELA BESTERENTZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udala Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako A.20.19.1 lurzatiaren jabari osoaren jabea da. Partzela hori Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako LARREATEGI 19 hirigintza-jarduerarako eremuan dago, eta honako erregistro-deskribapen honi erantzuten dio:

*HIRIKOA: Orubea, LAZKAOKO LARREATEGI 19 HJEko 19.1 EUaren Birpartzelazio Proiektuko emaitzako partzelen planoko A.20.19.1 PARTZELAREKIN seinalatua. Figura ia angeluzuzena du, seiehun eta hirurogeita bi metro koadroko azalera, sestra gainean 566,27 m<sup>2</sup>-ko eraikigarritasuna dagozko prezio itunduko etxebizitza-sabaian eta 1.793,18 m<sup>2</sup> etxebizitza librean; eta sestra azpiko eraikigarritasuna 317,76 m<sup>2</sup>-ko prezio itunduko garajea eta 1.006,24 m<sup>2</sup>-ko garaje libre. Mugakideak: iparraldean, 2 zenbakiko emaitzako finka edo A20.19.2 partzela eta U.G.1 urbanizazio orokorreko eremua; ekialdean, hegoaldean eta mendebaldean, U.G.1 urbanizazio orokorreko eremua, ibilgailuen eta oinezkoen sarbideak barne hartzen dituena.*

Lurzatia Tolosako 2. Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, 2.245 liburukian, 113 liburuan, 6894 finkan.

Esleipena arautuko duten prezioak edo tasak honako hauek izango dira:

Lizitazioa arautuko duen oinarritzko prezioa, gorantz hobetu daitekeena, LAUREHUN LAUROGEITA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA



BERROGEITA SEI ZENTIMOKOA (493.662,46 €) izango da. Kontzeptu horregatik esleitzean ateratzen den zenbatekoari dagokion BEZa gehituko zaio.

- Aurreko erregistro-deskribapenean eta onartutako beste hirigintza-dokumentu batzuetan jasotzen diren aurreikuspenen arabera, lurzatian eraikitzen diren etxebizitzetatik sei eta garaje-plazetatik sei hitzartutako prezioan egin beharko dituzte, klausula ekonomiko eta administratibo berezien agirian zehazten diren baldintzetan.
- A.20.19.1 lurzatia benetako gorputz gisa eskualdatzen da, kargarik gabe, eta egungo egoera juridikoan, hirigintzakoan eta fisikoan. A.20.19.1 partzelari dagozkion urbanizazio-obra eta -karga gehienak egikarituta daude eta Udal Administrazioak ordaindu ditu, eremuaren garapena arautzen duen hitzarmen bidezko egikaritze pribatuko sistemaren arabera. Beraz, Udal Administrazioak besterentzen den partzelari dagozkionak ordaintzen jarraituko du, nahiz eta Lazkaoko Udala dagoeneko ez izan hirigintza-erakundearen jabe.

Hau guztia honela, eta alkatearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, Larreategiko A.20.19.1 partzela besterentzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki du.

#### V.- GIPIZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BITARTEZ C GASOLIOAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOA.-

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, 40.5.b) artikuluan emandako eskumenekin bat etorritik, Gobernanzako foru diputatuak 2023ko otsailaren 20ko foru aginduaren bitartez, ESERGUI DISTESER S.L., I.F.Z. B95799664, enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez berogailurako C gasolioaren hornidura kontratatzeako esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzu buruak 2023ko martxoaren 24an emandako txostenaren arabera, aipatu horniketaren beharra dela eta, berogailurako C gasolioaren hornidurari buruzko kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Administrazio honek kontratatzea beharko duen hornidura zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 40.000 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua ESERGUI DISTESER S.L., I.F.Z. B95799664 enpresari esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

**LEHENENGO.-** ESERGUI DISTESER S.L, I.F.Z. B95799664 enpresari esleitzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez berogailurako C gasolioaren hornidura kontratatzekeo esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

**BIGARREN.-** Baimentzea eta xedatzea ESERGUI DISTESER S.L, I.F.Z. B95799664 enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion 20.839,77 € gehi BEZari dagokion 4.376,35 €ko gastua, 1 221.04.342.01 kontusailaren kargura.

#### VI.- PLAKA FOTOVOLTAIKOEN HORNIDURA ETA INSTALAKUNTZA LANEN 2. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Lazkaoko San Prudentzio ikastetxekoan, Arerian eta frontoian autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoak hornitzeko eta instalatzeko lanen obra zuzendaritza daraman Jorge Gomez Prieto ingeniariak, IP21 Ingenicria de Proyectos S.L. enpresakoak, lanen bigarren obra egiaztagiria egin du.

Obra egiaztagiri honen zenbatekoa HAMAZAZPI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIKA euro ETA HIRU zentimo (17.491,03 €) gehi BEZari dagokion HIRU MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIRU euro ETA HAMABI zentimo (3.673,12 €) da, HOGEITA BAT MILA EHUN ETA HIRUROGEITA LAU euro ETA HAMALAU zentimo (21.164,14 €).

Hornidura eta instalakuntza lanak Tapia Instalazio Elektrikoak S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, bigarren obra egiaztagiri hau aho batez onartu du.

#### VII.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:

- Antzar Konpartsa.-

Antzar Konpartsari Lazkaoko jaietan erraldoi eta buruhandien bilkura antolatzeagatik 3.000 €-ko dirulaguntza. 3.000 € horietatik, 2.000 €-ko lehen ordainketa orain egitea erabaki da.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

- Lazkaomendiko Jai Batzordea.-

Lazkaomendiko festak antolatzeagatik, 4.900 €-ko dirulaguntza. 4.900 € horietatik, 2.500 €-ko lehen zatia orain ordaintzea erabaki da.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.





VIII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hau onartu du:

Gida baimena euskaraz ateratzeagatik.-

Gida baimena euskaraz ateratzeagatik, bere espedientean dagoen lagun bakarrari 100 € ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.02.335.00 partidatik egingo da.

IX.- LANDA LURREKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei hamabigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

<b>Baserritarra</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Iztueta Elkarte SC	20 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>20 €</b>

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

